

8. FUNTZEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduerak dira txakurren eta adinekoen zaintza, zerbitzuaren eguneroko kudeaketa, eta komunikazio soziala, proiektua ezagutarazteko eta erabiltzaile berriak erakartzeko. Horrez gain, adopzio-elkarteekin eta udalekin lankidetza etengabea mantenduko dugu.Ondorengoko taulan aurkezten ditugun jarduera hauek dira gure proiektuaren oinarria eta arrakastaren giltza, ongizate emozional eta soziala sustatuz.

JARDUERA NAGUSIA	ARDURADUNA	MAIZTASUNA	HELBURUA
Kudeaketa eta antolaketa	Administratzailea	Egunero	Zerbitzuaren funtzionamendu egonkorra
Txakurren eta adinekoen zaintza	Zaintzaileak/ boluntarioak	Egunero	Maskoten eta adinekoen arreta, kudeaketa eta koordinazioa
Lankidetza elkarteekin eta udalekin	Talde osoa	Hilean behin	Aliantzak sendotzea eta ekimen berriak sortzea
Komunikazioa eta publizitatea	Komunikazio arduraduna	Astean behin	Proiektua ezagutaraztea eta bezeroak erakartzea
Adopzio- eta sentsibilizazio-kanpainak	Talde osoa	Urtean pare bat aldiz	Adopzio arduratsua eta gizarte-sentsibilizazioa sustatzea